

LEZO / Kalean da Korri, Xalto eta Brinkoren azken lana

‘Korri, Xalto eta Brinko’ liburutegian da. Ixerka! Bildumako bederatzigarren liburua

L. Muguruza

Korri, Xalto eta Brinko herriko pailazoek Ixerka! Ipuin Bildumako azken liburua argitaratu dute: Korri, Xalto eta Brinko Liburutegian.

Bederatzigarren liburua La Caixaren laguntzarekin atera ahal izan dute, hori dela medio, Lezo Oartzun, Beraun, Altza eta Trintxerpeko bulegoetan banatuko dira doan. Dena den, lehenagotik Ixerka! Ipuin Bildumako harpidedunei ere banatu zaie.

Azken liburu horretan, herriko pailazoak liburutegira joaten dira eta bertan hiru ipuin kontatzen dituzte: Korri pailazoak, Benantzio, Eskulaingo artzaia kontatuko du; Xaltok, Trigo eta Lopez mariñelen abentura, eta Brinkok, berriz, Atzekoateko katu beltza. Lehena, mendian gertatzen da. Bigarrena, berriz, itsasoan, eta hirugarrena, kalean kokatuko da. Hasieran, Lezo izan zen eszenatoki nagusia, orain, berriz, eskualdea.

Hiru ipuinen mezua garbia dela adierazi dute pailazoek: Liburu bat abentura zoragarria izan daiteke, eta liburutegia abentura askoren gordelekua. Horrela, guk telebista gutxiago ikusi eta gehiago irakurtzera animatzen ditugu haurrak.

Aurrekoekiko desberdina

Lehenagotik argitaratutako zortzi liburuak azken honekin konparatuz gero, desberdinak direla azpimarratu du Xalto pailazoak (Mikel Susperregik): Testu gehiago du eta letra aldatuta dauka. Bilduma duela lau urte hasi genuen; gure harpidedunak koxkortzen joan dira eta beren irakurketa maila handitzen. Hauentzako bereziki idatzi dugu zenbaki hau.

Pasa den asteazkenean Korri, Xalto eta Brinko pailazoek Andreone liburutegian izan ziren liburuan egiten duten gauza bera egiten, ipuinak kontatu eta liburuak publikoaren artean banatzen: Ipuin kontaketa etorri zirenak sorpresa ederra eraman zuten, esan du Xaltok.